



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE ESTUDIANTES, Y EMPLEABILIDAD

**GAZTE EKINTZAILTZARAKO BEKEN  
DEIALDIA  
2018**

## ATARIKOA

2017ko uztailaren 19an, Eusko Jurlaritzak eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak oinarrizko hitzarmena sinatu zuten gaitasun profesional handiagoa lortzeko, unibertsitateko titulazio ofiziala lortuta edo 2017/2018 akademi ikasturtean graduako azken ikastaroan matrikulatutako ikasleek enpresetan jasotako prestakuntzaren bidez, hezkuntzaren mundutik lan eta ekintzaitzaren era iragateko bekak eskainita.

Aipatutako hitzarmenaren helburua da Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailaren eta Hezkuntzako sailaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzak, "Hezkuntza-arlotik lan-arlorara igarotzea" eta "Gazte ekintzaitza" izeneko bi programa abian jartzeko. Hauen bidez, hezkuntzaren arlotik lanaren arlorara iragateko esperientzia eskaintzeaz gain, ikasleek gaitasun handiagoa lortu ahal izango dute graduako azken ikastaroan edo unibertsitateko titulu ofiziala lortu berri dutelarik.

Kontutan hartuta "Hezkuntza-arlotik lan-arlorara igarotzea" programak deialdi eta esleipen prozedura espezifikoak zituela, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak "UPV/EHUren Gazte ekintzaitza" izeneko programaren deialdia onartzea eta abian jartzea erabaki zuen iragan 2017ko irailean. Arestiko deialdiaren oinarrietan aurreikusitako prozedura burutu ostean, UPV/EHUK gazte ekintzaitzarako 45 beka adjudikatu zituen eta, era honetara, programa gauzatu.

2017ko uztailaren 19ko esparru hitzarmenak aurreikusten du bosgarren xedapenean ezen, indarraldiari dagokionean, luzatu ahal izango dela, aldeek espresuki hala adostuta. UPV/EHUKo errektoreak aipatutako hitzarmena luzatzeko borondatea adierazi duelarik, diktatu da Hezkuntza sailburuaren 2018ko ekainaren 8ko ebazpena, non gehitzen baitzaio UPV/EHUKo 2018ko ekitaldiari dagokion urteko finantzaketa prestakuntzara bideratutako kontratu programarako eta bide ematen baita, aurrerako esandako ekitaldiaren barruan, "Hezkuntza-arlotik lan-arlorara igarotzea" eta "UPV/EHUren Gazte ekintzaitza" programak buru daitezten.

Kontutan hartuta "Hezkuntza-arlotik lan-arlorara igarotzea" programak aurtengo ekitaldian ere deialdi eta esleipen prozedura espezifikoak dituela, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak "UPV/EHUren Gazte ekintzaitza 2018" programaren deialdia onartzea ondoren zehazten diren baldintza hauen arabera.

### 1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

"Gazte ekintzaitza" izeneko programak enpresa arloko ideia edo ekimenak laguntzea izanen du helburu, gehien dela, 45. Honetara, ekintzaitzaren kultura zabaltzeko eta aktibatu nahi da bekak jasoko dituzten ikasleen artean, unibertsitatearen eremuan sor litezkeen enpresa ekimenak laguntzearen.

### 2. OINARRIA. BALDINTZAK



1. Parte hartu ahal izango dute programan UPV/EHUko titulatu eta ikasleek baldin eta azken hiru akademi ikasturteetan (2015/2016, 2016/2017 edo 2017/2018) unibertsitateko titulazio ofiziala lortu badute edo 2018/2019 akademi ikasturtean graduiko azken ikastaroan edo master ofizial batean matrikulatuta badaude.
2. 2017ko deialdian bekarik lortu dutenei dagokienean, ezin izango dute 2018ko deialdian laguntzarik lortu, ondoko egoeraren batean badaude:
  - Beka onuradun gisa hautatuta suertatu ondoren, sinatutako konpromiso agirian jasotako betebeharretako bat bete ez badute.
  - 2017ko deialdian aurkeztutako proiektua, jada merkatuan diren zerbitzu edo produktuetan oinarrituta badago.
  - Aurreko urtean lagundutako proiektuari jarraipena emanik, aurkezten den proiektua ez badago aurreragoko fase batean.

### 3. OINARRIA. PROIEKTUEN TIPOLOGIA

1. Deialdi honetako laguntzarik jaso ahal izango dute:
  - a) Heltze fase ezberdinetan (abiatze fasea edo hazkuntza fasean) diren enpresa proiektu edo ekimenak: ideia balioesteko fasearekin hasi, bideragarritasun plana garatu, start-up abiatu eta/edo garatze fasean diren proiektuak, finantzaketaren lehendabiziko txandetan.
  - b) UPV/EHUko ikertzaile edo ikasleen lankidetzaz enpresa berrikuntza helburu garatzen ari diren proiektuak.
2. Lehentasuna izango dute profil zientifiko teknologikoa izango duten enpresa proiektu edo ekimenek edo merkatuari begirako berrikuntza maila esanguratsua dutenek.

### 4. OINARRIA. BEKAREN ZENBATEKOA

1. Hautatuko diren proiektuetako ikasle edo titulatuak 3.600 eurotako laguntza ekonomikoa jasoko dute, PFGZri dagokion ordainketaren zenbatekoa kenduko zaiolarik.
2. Gainera, UPV/EHUK mentoreen sare bat jarriko du beren esku, proiektua garatu ahala, aholkularitza profesionala eskainiko diena, eta ikastaro espezifikoak antolatuko du ekintzailtza eta berrikuntzari buruz, bertan nahitaez parte hartu beharra izanik.  
Ikastaro honetan ez lukete hartu beharko bertan parte hartzeko ezintasuna behar adina egiaztatuko luketen onuradunek.
3. UPV/EHUK ziurtatuko du programan parte hartuko dutenek bizi eta istripuetarako aseguru bat sinatuta dutela, proiektuak dirauen bitartean litezkeen arrisku nagusiak estaliko lituzketenak, bai eta kontzeptu honengatik eratorritako gastuak gain hartu ere.
4. Beka onuradunaren izaera pertsonala eta besterenganaezina da. Hortaz, deialdia ebatziko duen erabakiarekin batera argitara emango den onuradunen zerrenda behin betikoan agertutako NAN zenbakiei dagokien pertsonak ez beste inork jasoko du bekaren zenbatekorik, ez eta bekari loturiko bestelako onurak ere. Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa transferentzia bidez ordainduko da, beka onuraduna titular izango duen banku

kontu batean. Ez zaio inola ere ezelako zenbatekorik ordainduko edozein eratako enpresa zein elkarteri.

## 5. OINARRIA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

- a) Proposamenaren profil zientifiko teknologikoa edo berrikuntza maila (40 puntu).
  1. Garatu beharreko produktu edo zerbitzuaren tipologia. Egungo eskaintzarekiko desberdintasuna. Abagunea (20 p.).
  2. Produktu edo zerbitzuaren garapen maila: Kontzeptu proba, prototipoa, merkatu testa eta abar (15 p.).
  3. RIS3 sektoreekiko lerrokatzea (5 p.).
- b) Negozio ereduaren balio proposamena (30 puntu).
  1. Merkatu potentziala. Tamaina (10 p.).
  2. Balio katea: hornitzaileak, bezeroak, lehiakideak eta preskriptoreak (10 p.).
  3. Merkaturatzeko estrategia (10 p.).
- c) Ekintzailea / talde sustatzailea (20 puntu).
  1. Gaitasun teknikoa eta/edo gestiorakoa, proiektuaren eremuan (10 p.).
  2. Ekintzailearen / talde sustatzailearen konpromisoa (10 p.).
- d) Proiektuan erabil daitezkeen baliabideen aprobetxamendua, jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna (10 puntu).

## 6. OINARRIA. PROIEKTUEN HAUTAKETA

1. Ondoko kide hauek osatuko dute hautaketa batzordea:

- Praktika eta Enplegagarritasuneko zuzendaria.
- Gipuzkoako Campusaren garapeneko eta Campuseko kanpo harremanetako zuzendaria.
- Arabako Campusaren garapeneko eta Campuseko kanpo harremanetako zuzendaria.
- Bizkaiko Campuseko Kanpo Harremanetako zuzendaria.
- Berrikuntza eta Transferentziako zuzendaria.

2. Hautaketa batzordeak, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aldez aurretik aztertuta eta egin beharreko eztabaidak egin ostean, hartu beharreko erabakiak hartuko ditu eta bileretako aktetan jasoko. Aipatutako eztabaiden edukia ez da publikoa izango, ez eta, inola ere, eskatzaileei jakinaraziko ere.

3. Hautaketa batzordearen erabakiak proiektuei emandako puntuazioa aintzat hartuta hartuko dira.

4. Hautaketa batzordeak ahalmena izango du sor litezkeen eta oinarriotan arautzen ez diren arazo guztiak interpretatzeko eta hartuko dituen erabakiak ustezko legezkontasuna izango dute eta oinarri hauetako edukiarekin bat etorriko dira.

5. Hautaketa batzordeak erabakiaren proposamena helaraziko dio Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeari, deialdi honetako 8. oinarrian eskariak aurkezteko jasotako epea amaitu eta, gehien dela, 30 egun iragan baino lehen.

## 7. OINARRIA. KONPROMISORAKO DOKUMENTUA

1. Bekaren onuradun guztiak konpromisorako dokumentu bat formalizatu beharko dute, non zehaztuko baitira programa honetan parte hartzeaz batera bere egiten dituzten betebeharrak guztiak.

2. Dokumentu honetan jasotako konpromisoren bat bete ezean, berori sinatzen duen onuradunak onartzen du beka programatik kanpora egozteko. Arestikoaz bat, bekari loturiko onurak jasotzen ezinaz gainera, UPV/EHUri itzuli beharko zaio beka gisa jasotako laguntza ekonomikoa.

## 8. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

1. Deialdi hau UPV/EHUREN enpleguaren atari tematikoan (HYPERLINK "<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua>") argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskariak aurkezteko epea eta 2018ko irailaren 18an 16:30etan amaituko.

2. Parte hartzeko eskariak <https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/gazte-ekintzailtza-bekak> webgunean eskura daitekeen formularioa beteta aurkeztuko dira. Eskariarekin batera, honako dokumentazio hau agertu beharko da:

- Enpresa proiektua justifikatzeko memoria, I. eranskin gisa atxikita doan gidoiari jarraituta. Dokumentu honen luzera ez da inola ere 10 foliotatik gorakoa izango. Gainera, laburpen exekutibo bat ere atxikiko da, gehienez bi orritako luzeraz, enpresa proiektuaren alderdi esanguratsuenak azpimarratuz.
- Enpresarekiko lankidetzaren arloko berrikuntza proiektuen kasuan (3. oinarria, b. puntua), enpresaren deskribapen laburra eta enpresak aurkeztutako proiektuarekiko lerrokatzea zehaztuko dira.

3. Formularioa bete eta eskaria igorri eta gero, eskatzaileak gordekina jasoko du eskaeran, jakinarazpenetarako zehaztu duen helbide elektronikoan. Mezu elektronikoa hau behin jasota, inprimatu eta igorri beharko zaio UPV/EHUREN edozein erregistro orokorretan aurkeztuta (UPV/EHUREN 2007ko maiatzaren 28ko erabakia (2007ko abuztuaren 3ko EHAA) edo, bestela, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua) jarraiki eta Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordeari.

Aurreko pasartean adierazitako bideetatik telematikoki bete, erregistratu eta Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeari bidali ez zaizkion eskariak AURKEZTU

GABETZAT JOKO DIRA.

## 9. OINARRIA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK

1. Onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskaerak aztertuko dira. Analisi hau amaitu eta gero, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak enpleguaren atari tematikoaren webgunean argitaratuko du behin-behinekoz eskari onartu eta baztertuen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta gero, eskatzaileek 10 lanegunen epea izango dute, norberaren eskaria kontutan hartuta, eskatu zaizkion atalak osatu edo zuzentzeko.

2. Onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Okerrak zuzentzeko epea amaitu eta agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Ebaluazio fasera iragateko behin betiko zerrenda enpleguaren atari tematikoan argitaratuko da.

## 10. OINARRIA. ESKARIAK EBAZTEKO PROZEDURA

1. Deialdi hau Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordearen erabakiaren bidez ebatziko da, deialdi honen 6. oinarrian aipatutako hautaketa batzordeak proposamena eginik. Erabakiarekin batera eranskin bat osatuko da, beka esleipendun suertatu diren pertsonen zerrenda jasotzeko, NAN zenbakiaz eta aurkeztutako proiektuaren izenez identifikatuta.

Bekarik jaso ez duten eskatzaileek, aurkeztu beharreko eskaria aurkeztuta, jakin ahal izango dituzte hautaketa batzordeak bere proiektuari esleitu zaion puntuazioa eta suertatu den gutxieneko nota, hautatu den azken proiektuari emandakoa.

2. Erabaki hau webgunean jakinaraziko da eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, deialdi honekin lotutako komunikazioetarako eman duten posta elektronikoko helbidera bidalita.

3. Gainera, erabakia UPV/EHUren enpleguaren atari tematikoan argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua>). Honako deialdi honetako 10. oinarrian aurreikusitako epeak zenbatzeko baliatuko da aipatutako webgunean noiz argitaratu den.

## 11. OINARRIA. ERREKURTSOA

Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsu aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legeak zehaztutakoaren babesean.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsua jarriz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsuaren ebazpen espresa



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE ESTUDIANTES, Y EMPLEABILIDAD

eman edo presuntziozko ezespina gertatu arte.

Donostian, 2018ko irailaren 03an

Txelo Ruiz Vazquez

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Arloko Erretoreordea  
Vicerrectora de Estudiantes y Empleabilidad

